


ZER

BIZKAITARRAI-BIZKAIERAZ*

188n. zenbakia/iraila
1994



BIZKAIKO FORU ALDUNDIA
KULTURA SAILA
LAGUNTZAILLE



- BERMEO
- ARRANTZALEAK
- BOLANTAK
- EUROPA
- DANBADAK

GAURKO ARAZOAK

ARDOA ETA GIZONA NIJOA KANTATZERA...

Errikoia

UDA

Dagonila, udaren mamia eta erdia, dagoen ilea. Oporrak eta jaiak. Oporren ilea beinik bein. Bidaiak, itsasoa, ondartzak, mendia. Uriko dendak sarratuta, bulegoak erdi utsik, lantokiak gitxiengo serbitzuak eskeintzen. Ia Bilbon bertan ere, oizkoan bear dan baino denpora gitxiagotan, berebila izteko lekua aurkitu leiteke. Zearo aldatzen da gure ingurua: Uda-erriak bete eta Bilbo aldean utsitu.

UDA DIRU ITURRIA

Leen uda-errietako dendari, tabernari, e.a.-k "mana"-ren anzera itxaroten egoten ziren noiz eldu uda, ia urte guztiko irabazkinak bertan lortzen ebezalako, arrantzaleek egaluze eta bokartaren kanpainetan bezela. Baina gaur egun, krisialdi sasoi onetan, ondartzak beterik eta tabernak bezero barik agertzen dira.

Ez dago dirurik geiegikeririk egiteko, naiz eta beste gauza batzuetan ori ain argi ez geratu.

Erderaz "p"-tik asten diran iru gauzak dira nagusi: Ondartzak, pipak eta oinezko ibiltalditxoak. Udara begira, leen denda, taberna eta beste saltokietako saineurriak bolanderak bezela igoten eben, naiz eta zoritxarrez ez izan kanpotarrak ondoriorik gogorrenak jasaten ebezanak, errikoak bertakoak baino, udaren ostein salneurriak jaisterik ez egoalako.

Oporrik ez eta inoren oporren ondorioak jasan bear. Gaur kontu geiago euki bearko dabe saltzaileek salneurriekaz daukazan bezero gitxiak galdu gura ezik.

ARAZOAK ERRIKOEKAZ

Sarri askotan, kanpokoen etorrereagaz batera, bertakoak bigarren mailako biztanleak biurtzen ziran, aundikiei bidea zabalik iztera derrigortuta.

Nork ez ete dau entzun, erriarra izanik eta aurretik eldu arren tabernariak kanpotarrari leenago kasu egitea? Zein da lapurketaz kexatu ez dan baserriarra? Zenbat tomate, piper eta beste ortuari edo barazki batu ete da karakol edo marraskiloen ordezi Zenbat bearrezko bedarleku gelditu ete da etzunduta eta lisu sendi baten igande zorionsuaren ordaina bezela! "Qu bien lo pasamos en aquella campa!" esango dautse lagunei gainera.

Batzurentzat jolasteko zelaia dana beste batzuentzak bizibidea, batzuren jolasaren truke besteentzat buruko mina. Zorionez danak ez dira bardinak, ez dabe danak bardin jokutzen, baina betiko moduan errugabeak ordaintzen dau errudunak egindakoa.

Egia esan, onerako zein txarrerako, Bakio, Gorniz, Lekeitio eta antzerako errirentzat udagaz batera giza olatu itzela eltzen da.

JAIK ETA SANTUAK

Etajaiak. Zer esan jaiet buruz udan? Uztailean San Fermine-

tik San Ignazioara, bitartean Madalenak, Santiagoak, San Cristobalak e.a. luzea diralarik. Dagonilean Andra Mariak edonon, eta beragaz San Rokeak, San Agustinak, San Lorenzoak... Eta ori guzti ori gitxi bada Gazteiz, Donosti eta Bilboko "Aste Nagusiak".

Eleiza-konturik ez dogu jakin gura izango, santuengan ez sogu sinistuko, baina ori bai, santu batzuk geiago eukiko bagenduz urtean zear (batez ere lan egunetan) danak ospatuko gendukez. "Ezer ez eta festa" esaten dana egi biurtua.

JAIETAN ZER?

Baina bere sentzu erlijiosoa galdu ondoren, zer dira jaiak?

Borroka egunak kasu batzuetan (Donostiko Salve deritxena, edo Bilboko ikurrinen eguna), sendi arteko batzarra best batzuetan (erritik kanpo bizi direnak konbidatuak izaten diralako) eta zoritxarrez alkool geiegikerien egunak askotan.

Zorrotzago artu bearko leukie gure osasun-arduradunak alkoolaren arazoa gazteen artean, beste droga "gogorragoekaz" egiten daben modura.

Eta antolatzaileek ere jartzen diren tabernetako dirua jaiak ordaintzeko iturririk onena dala jakinik ere, sarritan, taberna edo "txosna" orreek arazo askoren sortzailea dirala ere konturatu bearko dira.

JAIETAN EDARIA

Edaria da gaurko gazteei sartu deutsegun ideologia, filosofia eta etorkizuna guraso eta eziketa arduradunek? Ez dot uste oneen aldetik inor bultzatu danik edatera. Baina zer beste aukera emoten jake gazteei?

Kasu batzuetan politikarena ere badago, edo euskerarena (estu lotuta sarri askotan aurrekoarekin); baina zenbat dira bide ori benetan eta euren kabuz artzen dabenak? Gazteak beti izan dira konformidade gitxikoak, eta ori ez da txarra (nor ez da gazte izan?). Baina gazteen indarrak, esperientzi gitxiko indar aundi orek zuzendu eta bear dan moduan erabiltzen irakatsi bear jake.

Kontuz! Zuzendu edo erabiltzen irakatsi, baina ez bideratu! Gaur gazte askoren indarrak beste batzuren ideiak lortzeko bideratu egiten dira, gazteei gazte izaten, pertsona izaten, eurak izaten itzi barik.

Azken batean esanda, euren nortasuna eukiten itzi barik. Bearbada pizti batzuek gertatzen dan antzerako "sinbiosia" gertatzen da, bien "onerako" izan leiteke, batzuk probetxua ataritzen dabelako indar orreetatik eta besteek pentsatu bearrik ez dabelako.

Azken batean alkoolak indarra emoten ei dauanez eta pentsatzeko gogo kentzen dauanez (edo oker pentsatzeko almena emon) jaiak gazteak aari taldeak lortzeko gauza aproposa izan leitekez.

Enrike Itxasalde

ARRANTZALEAK URDURI

EUROPA'RANTZA

Euskaldunok antxiñatik daukagu Europa'rantza jokerea. Ori izan ete leiteken goitik eta betik datorkuzan jazarpenak bideratzeko era bat.

Baiña geroago ta argiago agiri da Europa'ra sartze-ko aurkitzen diran oztopoak aundiak dirala: burdiña edo galtzairu-arloan larri ibilli gara ta gabiltz, gure aberedunak esnea saltzeko era gitxiago dauke, abereak urritu egin bear ei dira, irabazi gitxi dakarren ardiak artu bear ei doguz, eta orain arrantzaleen gorabera larriak. Oneik be ez dira gaurkoak, baiña gaur agiri dira iñoz baiño biziago.

Arazo guzti oneik eta aitatu lekezan geiago ikusita, itaun bat datorku burura: Orrelan izan bear dabe gauzak ala Europa'n zabal dabillen norberekeriaren ondo-renak dira?

BIDE OKERRAK

Arraintzaren arazo onetan beintzat bide okerrak agiri dira, ezelan be onartu ezin leikezan bideak: Legea ezarri (kilometro bi ta erdiko sareena) eta gero beteteko biderik artu ez. Orrelan legea beteten dabene gure arrantzaleak galtzaille aundiak izan eta itxasoa bera arriskuan jarten dala; izkilludun ontzi batetik izkillubakoa tirokatu eta gero guzurra esan, besteak izan dirala tiroak jaurti dabezenak; besteai sare luzeak erabiltea debekatu eta norberak erabili...

Antza dagoanez irabaztea da baliorik aundiena, egia ta zentzuna baiño balio aundiagoa. Zelako Europa egingo dogu oiñarriak olakoak izan ezker? Zalantza barik, antxiñako basatien Europa.

IZADIA ZAINTZEN

Itxasoa bear dogu, lana egiteko, janariak aterateko, arrisku barik ibilteko, aizea garbitzeko, ondartzak osasun eta goza-bide izateko... baiña itxasoa zaindu egin bear dogu, lenengo ta bein kutsaduraz arduratuz eta gero, arrantzarako ta janariak aterateko bear dan ezker, arraintza ori bear dan lez egiten dala. Sare luze

orreik artzen jarraitu ezker orretan be arriskua legoke-la diño.

ITXAROPENA

Gauzak ain txarto doazela ikusi arren, zalantza barik Europa Alkartua da gure inguru onetan urtenbiderik onena. Gaurko munduan norgeiagoka aundia sortu da eta urriñagoko errialdeen menpean bizi nai ez ba'dogu, ez da ikusten beste biderik Europa ondo alkatu eta beste batzuk dauken mailla lortzea baiño. Ori lortzeko arazo larriak eta asko daukaguz bidean: Politikan, ekonomian, gizabidean, erlejiñoan..., baiña ez dagigun itxaropena galdu.

Lenengo ta bein oiñarrian jokabide zuzen edo "etika" on bat bearko da. Arrantzaleen arazoan argi agiri da jokabide zuzen ori ez dagoala, eta orrez gaiñaera aldakuntza asko ta sakonak onartu bearko dira. Egin dagiguzan aldakuntzak zentzunez, alkar-izketaz gauzak konpontzen dirala, alkarren nortasuna beti kontuan artzen dogula.

Ez dagigun galdu itxaropena, baiña zur jokatu, zur eta sendo. Txalogarri lez artzen doguz arrantzaleen kofradietan arduradun diranen alegiñak. Orreik dira etorkizunari begira alegintzen diran gizonak. Ba-dakigu euskaldun lez zintzo ta zuzen jokatu daben. Orretan eredu lez agertu bear gara Europa'ren aurrean: Okerkeriak alboratu, guzurak salatu, egiagaz jokatu, gogorkeria neurritz erabili... eta aurrera beti.



PUBLIFIKAZIOA, PUBLIFIKATZEA, ERRIKOTZEA...

Ikaskurte barria astera doan ile onetan, ikastolentzat guztiz erabakikorra izan daiteken une baten aurrean aurkitzen gara. "Publifikazioa" egin danetik (edo egin gura izan danetik) ikastolen artean egon dan zeozer galdu edo apurtu egin dala uste dot: **BATASUNA**. Bai ikastolen artekoa, bai ikastola barrukoa, bere alde desberdin bien (baina osogarriak) artekoa: irakasle eta gurasoak.

Gobernu edo Jaurlaritzaren eskola-sarean sartzea diru aldetik mesedegarria izan bada batzurenzat, ikastola multzoarentzat, **IKASTOLEA**-rentzat, naiko tamalgarria izango dala uste dot, naiz eta erratuta egon gura esan dodan onetan.

MESFIDANTZA

Leenengo eta bein, nire susmo txarra eta mesfidantza, "publifikatze ori burutu dauan politika gizonarengandik eltzen jat. Ezin dot esan sozialismoa eta euskaldutasuna kontrakoak diranik. M.C. Garmendiak, Jaurlaritzako euskeraren arduradunak dinoanez, ongi etorriak euskerarentzat, abertzaleak ez izan arren, euskeraren alde lan egiten dabena, naiz eta PSOE, PP, UA, IU edo antzerako alderdietakoak izan.

Baina aspaldiotan oso gitxi izan dira (eta dira) euren euskalduntasunagaitik bereiztu diran **PSOE**-tarrak. Eta bereiztu egin badira, zerbait egin dabelako da; naiz eta asko izan ez, euren alderdikideak egin dabena baino askoz geiago danez, bereiztu egiten dira (Itsuen munduan...). Dana dala ez dot uste Ezkuntza Sailburua onen artean sartu geinkeanik.

Dana dala nire mesfidantza pentsakera politikoagaitik izan leiteke, edo Gizarteak gizonak mesfidatiak bihurtzen ditualako, edo aurretik ere euskal nortasuna diruaren truke saltzen edo erosten ikusteagaitik. Azkenengo onek belarrira gogorregi emon daiken arren, nire baitan badago, alako gauza bategaitik, ikastolen nortasuna galduko danaren bildurra. Zer da diruaren truke emon bear dana? Erainkuntzak baino ez?

ZER DA IKASTOLA

Euskeraren gordelekua da? Ala euskeraz irakasten dan lekua? Edo euskerea irakasten dan tokia? Nire ustez ori guzti ori eta geiagoo! Banaka aztertu daiguzan esandakoak:

EUSKERAREN GORDELEKUA

Euskeraren gordelekua? Euskeraren gordeleku obeagorik aurkitu geinke. Ez daigun aaztu Leioa, Deustu, Sarriko edo antzerako ikastetxe nagusi edo unibertsitateek izlari, filosofo, letra-gizon, lege-gizon, eta antzerako jakitun asko emon badabez, merito eta garantzi geiago euki dauala Basarteko unibertsitateak euskeraren gordeleku bezela. Dana dala "euskara ialgi adi plazara".

EUSKERAZ IRAKASTEN DAN LEKUA

Euskeraz irakasten dan lekua? Aspaldion "eskola publikoak" deritxen lekuetan ere, beste orren beste egiten da. Baina askok eta askok ikastetxe-mota biak bereiztu egiten dabez, bakoitzaren ezau-garriak eta eskeintzak kontutan eukita.

Ikastoletan oinarritzko jakituriak gain beste zeozer ere irakasten dala esaten da, beste ikastetxeetan ez irakatsi edo beintzat, neurri txikiago baten irakasten dana. Gaur egun, aurrerago esan dodanez,

ainbat eskoletan irakasten da euskeraz, beraz, zein da ikastolen bereiztasuna?

EUSKERA IRAKASTEN DAN TOKIA

Euskera irakasten dan tokia? Baita!, ori ere egiten da eta. Ia mundu guztiko eskoletan irakasten da tokian tokiko izkuntza, eta leku batzutan beste izkuntza bat edo bi (nonbait geiago erer bai), zelan ba, ez irakatsi euskerea Euskal Errian? Izan ere auxe izan zan elburuetariko bat ikastolak sortzean, euskera jagon eta zabaltzea.

ZEOZER GEIAGO

Baina zer geiago da ikastolea? Nire ustez euskal kulturea erakutsi, irakatsi eta zabaltzeaz arduratzen dan erakundea da (edo izan bearko leuke).

Beste ikastetxe batzuetan ori ez danik egiten ez dot esan gura, baina geinetan programazio ofizial bateri lotuta dagon neurrian baino ez da egiten izan. Are geiago irakaslerik geienak ez dirala euskaldunak izan eta kasu askotan ere ez direla bertokoak izan kontutan artuta.

ETORKIZUNA

Eta ortxe dago nire bildurra. "Sare publikoad" sartzen diren ikastolak, inoiz baino geiago programazio ofizial bateri lotuta geratuko dira, beste "dinamika" baten sartuko dira, agintaritzako politikoaren azpian. Orain arte euki dabena buru-jabetasunari eutsi aal izango dautse? Kontrolaren arduradunak, dirua emoten dabena ain zuzen, nortzuk diren kontutan arturik...

Beste alde batetik irakasleak dagoz. Azken batean, neurri aundi baten, ikastolen oinarrikerik gogorrenetariko bat irakasleen lana da, euren gainean jausten dalako irakaskintzaren pisua: zer eta zelan emon.

Eta ez gaitezen iruzurrean jausi. Ikastola askok eskola publikoak baino ikasketa maila altuagoa badauke. ikastoletako irakasle askok beste eskola orreetako irakasleak baino ordu geiago sartzen dabelako da (naiz eta geienetan gitxiago irabazi).

Orain funtzionari bihurtuta, nolabait lan-postua ziurtaturik, bardin jarraituko dabe? Ala eskola publikoetako beste maisuen lan baldintzak eskatuko dabez? Eta lortu ezker, errendimendua, batuko dan usta, bardina izango da? Bakoitzak atara daiazala bere ondorioak.

ITXAROPENA

Baina laster auteskundeak izango dira. "Balizko errotaren" kontua aintzat artzen badogu, baleiteke auteskunde orreekaz gauzak aldatzea, edo sailburua aldatzea, edo Ezkuntza beste alderdi baten eskuetan egotea, edo Ezkuntzari beste norabide bat emotea, edo... Baina, badakizu irakurle: Balizko erroreak urrmik ez!

Dana dala, "Erreforma" deritxon orrek aldaketa asko ekarriko ei dauz, eta euren artean buru-jabetasun aundia ikastetxeentzat.

Bearbada, emendik aurkitu geinke urtenbideren bat ikastolek ez daien ikastola-nortasuna galdu, bestela. tamalgarriz, orain urte batzuk eskatzen genduan "ikastola erri eskola" lortu arren, damutu egingo gara lorpen orretaz. Beste era batera esanda, diruaren truke (ikastolen zorrak ondu eta langileen lan ziurtasuna lortu funtzionari bihurtu) gure iparrotzaren Iparra galdutuz emon bearko dogu.

Enrike Itxasalde

AITA PIO SAROBE

ASTIGARRAGA

Aita Sarobe Astigaraga'n
jaio zan zorionean,
umerzurtz zala, Jaunak deituta,
sartu zan praille tartean;
Mixiolari gartsu egiñ zan
Peru barruko oyanean,
santutasuna gorengo maillan
bizirik danen aurrean.

ZORITXARRA

Zoritxarra izaten oi da, sarri askotan, gizaseme askoren ondamendia. Ez da ez, izan be, gauza erreza zoritxarrak garaipena eta zoriona ekartea. Zoritxarra ez da, orraitio, gaitzik okerrena giza bizitzan. Bai, ostera, bere ondoren garratzak: barrua garratzuta bizi izatea, lur jota buru makur ibiltea, eta bere menpe gorrian pot egitea. Zoritxarrari eup egiñ eta arpegia emon bear jako.

Aita Sarobe'k, Astigarraga'n jaiok (1855) zoritxarraren erpe zorrotzak ikusi zituan txiki-txikitatik, bada, ama il jakon jaiotzatik ogeita bat egunera, eta aita andik amai-ka illebetara.

Zoritxarraren zantzua ete dakar umezurtz bigun onek? Gure artean esakun zaar oneik entzun oi dira: "Begi txarrak jota dago ori". "Ementxe amaitu da orren izangoa".

Zer egiñ? Biziari bizmena ipiñi. "Illak il, eta biziak bizi-maiña. Ez dago beste biderik. Gure umezurtzak bere esku ditu munduko ondasunik bikaiñenak: bizia eta fedea. Bere barruko indar eta eragiteaz esan bear ko dau: eutsi bizitzari eta aurrera. Bizitzari sinismena eta maitasuna ipiñi ezker zergaitik izutu etorkizunaz?

Pio Sarobe'k, zorionez, bere senitartekoen artean abegirik onena izango dau; eta geroago Franzizkotarren artean. Karlisten gudu gogorrian Frantzia aldera iges egiñik, andik Peru'ra etorriko da.

AURRERA EGIÑ

Aurrerapenak ez dau mugarik eta mugarririk. Giza semeen izan-naiak eta gaitasunak beti ditu zabalik etorkizunaren zelaiak. Zorigaitza bera, eta eragozpenik gorrienak be, indar bultzagarria izaten dira gizon biozdunentzat.

Aita Piok, orixe bai, gogoan josita daukoz txikitatik izandako guraso-miñak. Gomuta illun orrekin zer egiñ?

Junak jun eta gaurdanik gora aurrerapena eta etorkizuna izango da bere legea. Eliz ikasteak gogotsu egiñik Franzizkotarren artean praille eskintza agindu eta apaiztuko da.

Euskal seme jator onen argitasuna, zuzentasuna eta gaitasunak ikusirik Franzizkotarren Nagusi izango da aibat urteetan (1888-1906). Noiz baiño noiz azkarrago eta baliotsuago dalarik praillegaien zuzendari be izango da.

Berebiziko ekarria da mixioak, bederatziturrenak eta gogo jardunak emoteko. Ez da gauza erreza gure moduko sermoi garratzakin emengo lagunengina irabaztea. Ondo daki ori aita Pio'k. Eta alegiñak egingo ditu Jaunaren Barri Onari barruko zer bat, biguntasun bat, eztitasun eta biotz ikutu samurra ezarteko.

Zer moduzko gizona da aita Pio? Gorputzez argala ta lerdena, penitentzi zalea, otoitz-bera, lanari eten barik emona, lege zaarreko profeta zorrotz bat dirudi. Bere bizitzaren santutasuna eta eragintasuna eguzkiaren argia bezala zabaltzen da lagun guztien artean.

Mixiolari santu bati dagokion lez, aita Pio bere giroan, mixio-zelaian ilko da garizuma neketsu batean (1910), 55 urtedun dalarik. Bere eriotzaren barri jakiñaz batera jende talde aundiak batuko dira azken agurra emotera. Euskaldun gotzain batek, Santiago Irala'k ospatuko ditu bere illetak eta goratu aren izena ta bizitza santua. Bere illobira, gaur egun be, lagun-talde aundiak datoz goi mesedeak eskatuzera.

Aita Pio'ren doatsupidea aspalditik asita dago eta bere idazlanak ontzat artuak. Azkenengo ogeitamar urteetan egindako bere arimaren egunaria aita Izagirre'k argitaratu dau. Egiaz bere arimaren ixpillu dirudi.

Aita Pio Sarobe'ren santutasunaren grazia Euskal erri-raño zabaldu bedi.

URIGUEN'TAR ZENON



EIRELANDAKO ADUA ETA MISERIA

Eirelandan anglosaxoiak agertu baino leen erri bat osotzen eben eiretarrek, nazino bat, etnia bat, besteengandik bereizi-bereizia, izadiaren eskuz eta inongo gizaki politikoen laguntzarik barik.

Geien geienak artzainak ziran. Batetik bestera ibilten ziran euren artaldeak. Lurra lantzen ikasi ebenean base-riak edo baserrialdeak sortu ebezan, banakaren batzuk artzain gelditu arren.

Urteen joanean, leinu ezbardinetan banandu ziran. Leinu bakotzak bere buruzagia eukala. Leinu guztien artean, buruzagien arteko buruzagi nagusia edo erregea aukeratzen eben.

Euren gizartean batzuen eta besteen artean giza-etzardintasunak egon arren, erri bat osotzen eben, kultura bat, monolitikoa, euren artekoen ezbardintasunetan monolitikoa, berau monolitiko egiten ebana izkuntzea zala, arean da: gaelikerea.

Lurralde geiagoren jaube izateko asmotan sartu ziran, bada, anglosaxioak eirelandan.

Gizarte ezbardin baten egitura arrotza ekarri eutseen: gizarte germaniko-normandoaren egitura, goitik beerakoa, ain zuzen be.

Baina, onez gain, orduko munduaren aurrerapen militarak be eroan ebezan. Oneen bidez lortu eben Eirelandako leinu guztiak azpiratzea.

Euren gizarte moeta arrotza indarrez ezarriz, bertakoen gizaldietako gizartea suntsituazoz. Onek erri xeearen buruak eta oiturak gogor be gogor astindu ebazan eta egoera larria berarengan sortu be.

Gizarte germanikoak euren buruzagiak edo euren aldekoak zerik onenetan jarri ebazan bitartean, jakina.

Ainbat oitura zaar, ekandu aaztuezin eta bizimodu aldagatz galazo eutseezan.

Eirelandarren mundua goitik beera etorren, noraeza aundienean sartzen zirala.

Ez ziran izan, gizaldi asko igaro arte, gitxienez, anglosaxoien mundu, gizarte egitura ori kontrolatzeko bestekoak. Eta au lortu ebenean, anglosaxoien egitura-pentsakerea ia kenduezina izan zan, guztiz kenduezina ez bazan izan be.

Baina onegaz batera, jakina, izkuntzea bera, galazo egin eutseen. Gaelikerea erri xeeak eta jakintzabakoek edo ezjakinek eta txiroek egiten eben, bakarrik.

Onetarako balio eban, ezeukien artean lekutxu bat egiteko. Baserri beartsuenetan ardiak eta beien artean berba egiteko.

Mozkortiek erabilen bakarrik. Prestigiorik eza! Aberatsa eta jakituna izateko, angelaz egin bear izaten eben. Ez eutseen beste biderik izten eta. Ez egoan beste norarik! Anglosaxoien agintea zan eta onetara makurtu bear izan eben, nai ta nai ez!

Egoera larri onetan, aitatu barik, makina bat gauza geratu dira: nai ta naiezko emigraziona, jazarpen fisikoak, oinazeak, ilketak, bear egitea galazotea, lurak eta basetxeak kentzea,... dana euren nortasunari, berez, jaiotzez izadiak emondakoari uko egin ezinik bizi gura izaten ebelako.

Olan bada, XIX gizaldiaren amaieran eta XX gizaldiaren asikeran sortutako iraultzearen ondorioz, lurralde geienetan burujabetasuna lortu eben. Ez ainbat odol eta negar isuri barik. Bearko!

Errigintzan asi ziranean, euren eskuetan errigintzan aste-ko aalmen osoa eta bakarra izan ebenean, porrot egin eben, baina.

Euren asmoa, Eirelanda gaelikora biurtzea izan zan. Baina, porrot egin eben.

Euren elburua zan, gizaldi onetan eben gizarte anglosaxoidun sakona ezabatzea eta sustraietara biurtzea. Eirelanda, barriro gaelikoa bilakatzea. Asmo polita eta eskubidezkoa.

Baina, porrot egin eben. Beste askok lez, biztanle asko-dun gunetan erantzuna egoala uste izan eben.

Izkuntzea bizirik zirauan lurraldeetan arretea bigarren maila baten jarririk. Ondorioa, gune biztanletsuenetan, biztanleagoak uko egin eutson euren jatorrizko izkuntzari. Zer edo agaitik. Bizirik egoan lurraldeetan, ostera, indarra, iztunak, lurraldea galtzen joian bitartean.

Gaelikerea izkuntza ofiziala da, bakarra, Eiren eta angeleria koofiziala. Paper bustietan, baina! Kaleko errealitatea oso bestelakotsua da. Ikastetxeetan eta Unibertsitateetan eta bearleku bat lortzeko, gaur egun be, nai ta naiezkoa izanda, oso gitxi batzuk dira izkuntza orretaz egiten dabenak.

Non eta geroago eta txikerrago diran gaelikeradun lurraldeetan! Baserrialdeetan! Bai, baserrietan irauan dau izkuntza onek. Laster ilko dan izkuntzea, ain zuzen, bein betiko. Euren eta euren bakarrik, arazo oneri konponbiderik aurkitzen ez badautsoe, beinik bein.

Eirelandako gizartea, burujabetasuna-independentsia euki ta be, oso anglosaxoia da. Kelten munduarenak eta pentsakerearenak, euren izkuntzearen eriotzeaz eurenak egin dau, bein eta betiko.

Arazo sakon oneri, gaixotasun sakon oneri osagai okerrak edota okerra ez bada izan, txarto edo era kaskarrean erabilteak, ondorio latzak eta atzerazekinak, barriro dinot, ATZERAEZINAK ekarri dautsoez.

Bizirik dauanari, leenengo ta bein, leentasuna emonez eutsi bearako eta andik asita zabaltzen joan, euren izan bear dabe eredu ta ikasgai eta.

Olako egoeretan ezin leiteke inor baztertuta albo baten itzi, danak bear bearrezkoak diralako. Ezin leiteke zentimetro bat be galtzen izterik onartu. Izkuntza ilak birreskuratze-ko bidea, ZELAN EGITEN EBEN BERBA, EGITEN EBE-NAK?, itaun onegaz asten da. (oartu, osterantzean, kornieraz, keltak euren be, jazoten dana).

Eta gure baserrira etorrita, Eirelandako bidean gagoz burubelarri sartuta gu be, diglosia eskerga, aundi-erraldoi, itzel baten sartuta. Gure izkuntzea ilten doa. Nirea beintzat, bai, eta txarrena, independentsiarik be ez dogula oraindikaren lortu.

Iniaki MARTIARTU

ESKUTITZA

M. Atxaga'ri nire agurragaz:

Egunero irakurten dot zure Deia'ko idazlana (martitzetan asi eta zapaturarte), eta guzurra dirudian arren, ia-ia dan-dana ulertzen dot, ulerterreza, argia eta zer esanik ez, egon be, idazten dozunaz ados nago geienetan. Ez beti baiña, ez ondo ulertu, ezta zuk dñozunaz bat etorri, askotan.

"BIDE SEINALEAK" aztertzean, egia dala esan bearra dago guda ondoan, ez bakarrik illobietan baita umeai euskerazko izenak ipinten larri ibiltzen giñala, obeto esanda, eziña izaten zala. Egunok baiña, zorionez joan ziran eta okerragorik etortea ez geunke ikusi gura izaterik, ezta etorkizunean egiten dogunaz damu izan bear geintekin.

Kale eta bideetako seinaleak eta izenak txukun eta ulertzeko moduan ipinteko, batetik ardura aundia eta bestetik dirutza bear dala. Ardurea beti egon da Euskalerrian eta orreri zor deutso euskereak bere arnasea. Dirutzari buruz, danok dakigu diru asko bear dala danerako baiña euskerea zaintzeko gaur egun baiño diru pillo aundiagorik egon ete da iñoiz?

Ez dot uste. Baiña euskaldunon zakeleko dirua izanda, ondo banatu ete danik ez dau jente larregik siñizten.

Beintzat emen, Bizkaian. Izkuntza ez dala errirako egin diño geienak. Beste "elite" batentzat ei da. Ez euskeraz pentsatzen dabenentzat. Erdera itzulua dala. Erdal joskeran euskal itzakaz itzulua.

Euskerazko testua erreza ez dala ez dau iñork ukatzen ala baieztatzen, ulergarria izan daitela da garrantzizkoa. –"Gastelaniaren alderantzizko joskera baitu askotan"–. Jakiña da alderantzizkoa izan bear dana, bestela euskerea ez litzake euskera izango.

Izkuntza bakoitxak bere joskera berezia dau, baita berezitasunak, eta oneixek dira izkunCzari bere nortasuna emoten deusanak.

Ala izkuntza biak pareko joskerak izatea gura?

Erderezko testua irakurri, ulertu eta euskeratu (euskeraren joskeraan, jakiña, guztiz alderantzizkoa izan arren). Ez dago orretarako Placido Mujika'ren iztegitik itzez-itzez euskeratu bearrik, ezta lana burutzeko Axular bat izaterik, ez eta iñork bere burua jakintsutzat artzerik.

Parkatu orrenbeste argibide jartzeagaitik baiña zure idazlana ain mamintsu dan neurrian beste orrenbesteko erantzunak emotea ondo edo bearrezkoa legokela iritxi deusat.

Itztegiatara jotzerakoan, badakigu iztegilariak zenbatearriro asmatu daben. Adibide bat ipintearren:

"bi 2.000 mila histegia"

ERAMAN: ad. 1 llevar -ado. 2 sufrir, aguartar.-ado 3 paciencia; caus. de joan.

EROAN: ad. 1 (B.NB) conducir, -ido; tiene conj. propia; automobila oso ongi daroazu, conduces muy bien el coche. 2 tener cargo, -ido etxe hori daroate: tienen esa casa a su cargo. 3 vide eraman.

Eraman aditza garaille izanik *eroan* aditzari esangurea kendu edo aldatu egiteko asmoa ete dago? Guk beti esan dogu *daroe* orain zergaitik *daroate*? Berba baten esanda: Ezer barririk edo onik ez asmatu eta dagoana zapuztu.

"Euskeraren Aholku Batzordeak", `Brakundeai aldrebeskeria eta zelebekeria guztiak" konpontzeko eskaria egin ei eutsoen.

Ondo deritxot Erakunde bakoitxak bere lurraldearen okerrak zuzendu bearrari badagolako bazterretan zer zuzendu. Diñozunez, kanpotik datorrena, seinaleen bidez oartzen da beste errialde baten sartu dala, baiña J.A. Fishman izkuntzalaria, bera be, "hiskuntzaren paisaiak" aitaizean, zalantzan jarriko leukela uste da, adibidez, Sondikan sartzerakoan "aireportua" itza irakurtean, erderazko ala euskerazko seinalea ete dan, ain euskal kutsurik bakoitz motela izanda.

Batasun politikari buruz, bai, benetan euskaldunen batasun politikoak orrenbeste istillu sortuaz egiten dauan ezkerro, miraria be izango litzake, aIde batetik edo bestetik iritxiak batzeko edo alkartzeko erdiguneren bat lortu aal izatea.

Onek baiña, ez dau izkuntzagaz zer ikusirik, ezta izkuntza bera errudun izan politikaren eztabaida eta zeregiñetan benetako euskerea oiñarritik ondo ala txarto irakatsi egiteaz. Dana dala, edonork daki euskaldunak batu egingo ez diran neurrian ez dabela bear leukien elbururik lortu aal izango, ezta iñoiz Erria izaterik lortuko.

Katalanak dirala-ta, ez dogu eurekatitik estutu edo arduratu bearrik, arazoak geuk baiño obeto konpontzen dabez; ekonokia-maillan eta izkuntzan be bizkor doaz. Barcelona'n asi, Valencia'n jarraitu eta Baleares'ko ugartetaraño, batzuk argi eta garbi, beste batzuk zelan edo alan, ondo ulertzen dira alkarregaz. Erria bezela barriz, katalandar lurraldeok ez dira iñoiz orain baiño aundiago izan; lanari ekiten deutsoe, besterik barik, itzelezko edo bear dan besteko, beintzat, aurrerapenak lortuz.

Gogo onez irakurritakoari, bidezkoa eritxi deusat erantzuna emotea. Besterik ez da izan nire asmoa auxe baiño, zure `aide seinaleak" aztertzean eta bide batez agurturik beste batera arte esan.

LARRONDO

ARGI-UNE IZPITXUAK



PRALLES Y MOJAS, BUENAS ALPROJAS

(29-V-94): Komentuen aldeko Otoitz-eguna)

—Ala esaten eban Zupiria zaarrak: Pralles y mojas, buenas alprojas.

—Nor zan Zupiria zaar ori?

—Errioxa'tik ardauek ekartzen ebillen begi-bakar bat zan Zupiria jaun ori. Zaartzaroan, etxe-aurrean egoten zan eguzkia artuten. Neguan, berriz, bi txapel eta bi blusa erabiltzen ebazan batera.

—Bera izango zan a, alproja galanta!

—Ori ba, bera zer zan, uraxe besteai eantsi. Errian ba egozan bi komentu: bat prailleana eta bestia mojeena. Goizean-goizik asiko ziran txiliñak jo ta ke. Lorik goxoe-nean esnatuko eben geure gixon au eta orixe aguantau ezin... Gañera, lanik gabeko alperrek omen ziran.

—Badagoz makiña bat pralle eta moja naikoa lan egin-da gero ara joanak. Bestela galdetu Ziortza'ko aita Patxi'ri.

—Munduan lana ba' dozu, zertara joan komentura?

—Kristautasunezko ekintzetan, kanpotik egiten dan lana bearrezkoa da; baña, ez da naikoa.

—Egon, egon, ia ondo ulertu dodan: Lan ori bearrezkoa da; baña ez da naikoa Zer esan nai dozu orregaz?

—Agertean egiten diran lanak, kanpotik ikusten diranak, egin eginbear dira; baña, lan oien espirituzko barruko emaitzak, beste alde batetik datoz...

—Erderaz esaten dan "A Dios rogando y con el mazo dando", ori al da?

—Orren antzeko: lanak emen eta emaitzak an.

—Nun, baña?

—Bakoitzaren baitan, bakoitzaren barrenean.

—Ez dozu oso garbi esaten.

—Kontakizun baten bidez argituko dautzut arazoa. Bazan erririk-erri mixioak emoten ibiltzen zan mixiolari bat.

—Zertzuk dira mixio onek?

—Errietako parroketan emoten ziran aste beteko sermoi eta itzaldiak ziran mixioak.

—Eta, zer gertatu jakon mixiolari orreri?

—Ba, egun batez, sermoia amaitu ta gero, gizon eldu bat etorri jakon, bizitza osoko garbitasunak egin nai ebazala, esaten. Oso damuturik etorren eta bere jokabide gaiztoetatik irteteko gogo bizian.

—Gogor emon eutson, e'?

—Bai, mixiolaria arriturik egoan. Onela esaten eban bere kolkorako: Nere berbak bai dabela indarra! Eta, arro-arro auxe galdetu eutson gizon damutari: —Zerk egin dautzu zirkin barruan, orrelako aldaketa izateko? —Ai, aita, zuk Olofernes! Olofernes! garraxi egin zendunean, biotzean zarratada aundi bat sentitu neban eta emen nozu zuri esker, aldeta oso bat egiteko asmoetan.

—Txo, txo, ori zorakeri bat besterik ez dok.

—Zorakeria izan edo ez izan, egia da, geuk esandako berba tentel batzuei esker, egiten dituela Jainkoa'k bere lanak biotzetan. "Aleari bere bizia, bere aztea eta elburura iristea, ori Jainkoa'k emoten dau eta ez alea ereinten dabena".

—Eta, onek zer ikusi dau pralle eta mojekin?

—Zenbaitzuk ikusi dabe, euren mixiolari-lana naikoa ez dala eta orregaitik igo dira Moises'ekin mendira.

—Entzun, txo, zu zoratuta zagoz ala neu zoratzeiko asmotan? Zer ikusi bear dau Moises'ek amen?

—Moises'en laguntzaille zan Josue beeko ibarrean burrukan ebillen artean, Moises bera ari zan otoitzean, besoak zabalik, Jainkoa'ren aurrean.

—Eta, zer?

—Moises'ek eskuak goruntz zituen bitartean, Josue'k irabazi eta nekatuta jeisten ebazenean, orduan, galdu.

—Eta, mojak Moises'en gana joan dira?

—Bai, mundu onetan naikoa lan eginda gero, askok otoiz-bidea aukeratu dabe... Eta eurok gure alde egunerok egiten ba'dabe; egin dezagun geuk ere euren alde urtean beingoz, beintzat, otoitz ori.



MUNDUKO FUTBOL TXAPELKETA

- Maradona etxera bota dabe "efedrina" artu daualako.
—Zer da "efedrina ori?"
—Sudurretako mukia, eta oien ingurukoak, legortzeko eta orrela arnasa erreztzeko da "efedrina". Estula danian artzen da.
—Bai, lenago be, drogak artuta ibilli zan Napoles'en egoanien. "Efedrina" k be izango dau drogaren antzen bat.
—Bai, FIFA'k debekatuta dauka droga lez. Baña, ez omen du indarririk ematen.
—FIFA'k debekatzeko egingo dau zer-edo-zer.
—Arnasia erreztu eta gorputza bizitu. Dana dala, bedekatuta dagoanez, etxera bialdu dabe, naiz-eta berak drogarik ez dauala artu, esan. Gero gertatu da, bere sendagi-leak jakin barik, artu ebal sendabide ori.
—Okerrena da Argentinan ia eroe bat bezela darto abela. Oker egin ba'dau, okerkeri orregaitik ezin da gizon bat goratu...

- Eta Andres Escobar'eri gertatu jakona?
—Nor da Escobar?
—Colombia'ko eki poan erdian jokutzen ebana.
—Eta, zer gertatu jako?
—Ba, naiezta, bere portierian gola sartun dau. Gol ori dala-ta, Colombia'k galdu eta etxera...
—Orixe da suerte txarra izatea!
—Etxera joan da, amabi tiro emon deutsoez.
—Nola liteke?
—Dantza-leku batetik irteetan, gerturatu ei-jakon gizon-zeko bat, "zorionak golagaitik" esanaz. Bertan il zuten tiroka.
—Ori ez da gizabidea! Futbola ona da eta Munduko Txapelketa erriak alkartzeko egiten da.
—Alkarte ederra! Jendea zoratuta dagoela dirudi.
—Futbola askorentzat jainko-txiki biurtu da. Besterik ezean, berari eskeintzen diote bere izate guztia... Munduko alde aietan ba ziran aurren bizitza eskatzen eben jainkoak. Familikoek eramaten zituzten aurrak jainkoari eskeintzeko eta ondo gobernatuta gero, gizen-gizen egin da, apaizak bularra ebagi ondoren, biotza ateraten eutsen, bizirik oraindik, jainkoari aldara gañean eskeintzeko...
—Jainko berri dan Futbolari be bai?
—Ala dirudi.
—Futbola orrelan artzea, geiegizkoa da eta geiegizko guztiak dira txarrak.

—Nik uste dot, danok dogula geure barruan jainko baten bearra; Goiko Jaunaik ez danean, beeko jaunak aukeratzen doguz... Askorentzako, egarri ori asetzeko modu ustel bat da Futbola.

—Txo, futbola ez dok ustela!

—Ez, baña, ustelkeri asko egiten dira futbolaren inguruan, eta mundu onetan, guretzeko beste mundurik ez ba'da futbola baño, orduan ustelkeri utsa gertatuko da.



EGUNKARIA

- "Egunkaria"ri 75 milloi emango deutsoez urteero geure Agintariek.
—Eta ZER'eri zenbat?
—Txo, txo, geu eltxoak gara eta eurok arranoak.
—Bai, baña, orrek zer ikusi dau? Geuk be euskeraren alde jokutzen dogu, euskera errikoi jator baten alde. Eta, oiek besterik, zer?
—ZER'eri lagundu bearrean, zer egin badakite.
—Ez dautzut ulertzen bape.
—Oraingo beiak ez diraz eskuz eraizten eta jetxitzen, artarako makiña eta tramankulu berriak dagoz, errapeko titi-moko guztietan batera lan egiten dabenak.
—Eta, zer?
—Geuri makiñatxua palta.
—Erosi.
—Edonon ez dautsoe saltzen.
—Zergaitik ez?
—Tontu zara, ala? Atxe galanta eta Batua erabiltzen ez ba'do zu, ez daukazu errapera elzeko makiñarik; ezta eskuz egiterik be.
—Barkatu, barkatu. Gaur illun agertu da eguna eta ez daukot argirik asko buruan, baña entzunda neukon atxe ori Iraultza baten ikurriña zala...
—Ba, orixe: Danon diruak ez dirala danentzat banatzen.

BIBLIA EUSKERA BATUAN

- Danontzako serbituko daben Biblio Oso bat atara omen dabe euskara batuan.
—Danok oiek nortzuk dozak?

ALBISTEAK

- Katolikoak, Ebanjelistak eta danok.
- Ebanjelista onek Batukoak al dozak, ala?
- Ez dozak bereiziki artakoak, baña...
- Baña or dagozak soloan.
- Zer esan nai dau orrek?
- Baña asko dagoela Euskalerriko soroetan eta inkulturaziño gutxi.
- Inkulturatuko dozak beuren garaian...
- Gaur da gaurko garaia eta gaurko euskaldunek Jainkoaren Itza beuren izkuntzan maite dabe... Bakoitzak be-rean, edo bestela, Elizan, inkulturaziño arazoa Afrika'ko beltzentzat laga.

XV URTEKO LENDAKARI-EZA

- Jauregi sozialista jaunak esan dabenez, XV urte aue-tan ez dogu euskaldunok Lendakaririk izan.
- Lehendakirik, bai, Lendakaririk, ez.
- Bai, Lendakari berba Agirre'na omen da eta arentza-ko bakarrik.
- Eta, beste ondorengo guztiak zer dira ba?
- Lehendakari dira.
- Ori nor esan dau?
- Askok eta Jaurlaritzak be bai.
- Eta nor da Jaurlaritzaz gauzak idazten erakusteko?
- Zergatik, ez?
- "Zapatero a tus zapatos". Ori ez da Jaurlaritzaz baten lana.
- Mao'k egin eban Txina'n.
- Idazkera erreztu eta 20.000 itz-kiñuetatik 2.000'ra pasau. Ola gauzak errezteko, tira; baña, gauzak zailteko, ez.
- Baña, Jaurlaritzak Euskaltzaindiari emon dautsoz indar eta aalmen osoak eta berari bakarrik. Euskaltzaindiak be, orixe erakusten dau.
- Esan dautzut, Jaurlaritzaren lana ez dala Euskaltzaindiari, eta berari bakarrik, iñungo aalmenik ematea.
- Zergatik ez besterik ez ba'dago?
- Euskarazaintza be or dago Madril'eko eta Gazteiz'ko Jaurlaritzek onartua... Zergatik bereizkuntza onek?
- Errapaera eltzeko makiñatxurik ez dozuelako...
- Baña, ez zan ori oraingo arazoa, auxe baño: Zergatik esan dau Jauregi'k amabost urte onetan ez dogula Lendakaririk izan?
- Euren aitaren-etxea Madrid-en dagoelako; guria, berriz, Euskalerrian.
- Lendakaria, ordea, izan dogu eta zenbat lan egin daben Euskalerrian alde...
- Baña, ez España'ren alde. Euren aitaren-etxea Madrid eta España da; Euskalerria, berriz, morroien txabola bat besterik ez da...
- Or tarte orretan badago bete eziñezko osin-zulo aundi bat. Ori bete naiko dau Jauregi sozialista Lehendakari berriak.



EMAKUMEAK ABADETU

- Ingalaterra'n sekulako istilluak atera dabez emakumeak abadetzea dala-ta.
- Batzuek alde ere egin dabe beuren elizatik; baña, jende geienak onartu dabez emakume abade berriak.
- Bai, ala da. Baña, Aita Santuak ez dau ori esan.
- Zer esan dau, ba?
- Gizonak eta kito.
- Zergatik? Historian zear sekulan emakume abaderik izan ez dalako, ala?
- "Arrazoiak neuriak eta eurak naikoak" esan ba'leu bezela. Ori diño Ingalaterra'ren Eliza'ko zenbaitzuk.
- Bai, Jesus'ek be ama ez eban abadetu...
- Ez eban besterik palta, judeotar guztiak bere aurka ipintzeko. Gizona zan buru bai etxean, bai kalean, bai elizan, bai sinagogetan... Emakume bat Apostoluen artean imiñi ba'leu, orduan bai entzungo ebazala "kristonak"...
- Gizarte-giro orretatik atera zala Jesus'ek emakume abaderik nai ez izatea, ori ez a buru-bide zuzena...
- Aita Santuak esaten dau ez dala ori bakarrik; Eliza'ren historian zear ez da emakume-abaderik bat be ikusi, sekulan... Orrek agertzen dausku, ez ebalu Jainkoak nai emakumeak abaderatzerik...
- Batzuek diño ze, "gizakia" dala apaizgoa artzeko gaia eta ez "gizona" bakarrik. Eta alan, emakumea be, "gizakia" da...
- Dana dala, "Roma locuta, causa finita" esaten eben lenago; ez dakit, ordea, onenbesteko arazoa ote dan emakumeak abadetzea...
- OPUS'eko Jutta Burggrat, teologiaren erakusleak onela diño: "El hecho de unir el sacerdocio a la figura del varon pertenece al aspecto puramente sacramental..." (Vida Nueva, 11-VI-1994).
- Eta, ori zer da?
- "Dakixenak bakixela".
- Ez dautsot ezerbe entenditu.
- Ez neupe.

BARTOLO ARROPAIN'GO

BEGIRA

IKUSI!

Itz... berba ederra da. Nor da begira dagoana, nor da begiratzaillea, ta nora begira dago...?

Personeak begiak daukaz, ostopo egin ta jausi ez dedin. Izan bere, samingarria litzake, persona itsua izan, ta nora ezean ibilkeran, arri, zugatza nai ate-ertza jo ta muturrak apurtzea.

Baiña ez, era orretan ibilteko jaiok ez gara. Biziaren egilleak, gorputz ta gogoz, ondo, orniduta, aurkeztu ginduzan lurrean.

ELBURUA

Gorputzak bere zentzun zoragarriak daukaz ta gure gogo ta nortasuna, gure gidari diran almen izugarriak: "Gure umearen begiak, gure umearen belarriak lakorik ez dago, artista bat izango da ori, gazte izatera eltzen danean"Uxela, uxela...!

Personearen zentzun ta almenak zeregin aundi bat ekarri dabe mundura... kusi, entzun, asmau... Ni zertarako naz? Nire elburua zein da? Samiña, neke-miña, negarra? Utikan... Olakorik ez...

ZENTZUNAK ZERTARAKO?

Egille, berez, on utsa danak, elburu ain gogorrik ezin eikioen jarri bere maitasun utsezko seme-alabei. Betira arte maite ditu almen ederrezko izaki argidunak.

Personeak zentzunak ta almenak daukaz, bere bizitza osotuteko.

Beraz, iturri bi daukezela dirudi bere bizitza landu ta osotuteko. Ta bizitza guztia, ementxe, lantzen da.

Entzun, ikusi, gosea asmau ta eskuen bidez lan egi ten dau, gorputza, bertan bera, il ez dedin.

Biziari eutsi egin nai deutso, barruko bizi egarriari dagokion eran.

Gauza egokia ta zuzena da, esker utsean, artu ditugun zentzunak, euren arazoak betetuten erabiltea, gure bizitz zeregiña osotu daiten.

IRU ALMEN

Ori dala-ta, personea zurtasun guztiaz dabil solo, zelai, baratza, arru ta mendiak ta burdin miak landuten, errien bizia ilduratu ta galdu ez dedin.

Personeak ba-ditu beste iru almen eder-ederrak. Antxiñako jazoerak gogoratzeko argia, bizitzaren barri ikasteko adimena ta ona dana aukeratu ta maitatzeko naimena.

Argi ikusten danez, gizona ez da edozelango izaki barregarria... Gizona lurraren azala landu ta lur-barruko miak menperatu ta gizarte bizitza on bat eratuteko da bardintasan, anaitasun ta askatasun bidean.

ATSEDENA

Almen eder onen bidez, ikusi, ikasi ta landu egingo dau euskaldunak bere ingurua ta bere lurra.

Au da izan bere, jatorriz, sortzez, artu eban jakiturizko agindua... Ta lur onek dirautso euskaldunari: Arduraz ta ondo landu nozulako, anaitasun-giroan, zure bizi egarria asetuteko, beste atsedeen bizitza bat dago... ez nekezkoa, bai pozezkoa, ez miñezkoa, bai irripar gozoz atsedenezkoa.

BASETXEA

Lurra begira dago.
Giza eskua nai dau
burdin-atxurragaz;
atxurkada min ordez
gaiña jantziko dau
arto loreagaz.

Baserri orma zuri,
baserri teilla gorri
garitza erdian;
ez da burdiñezkoa,
ogi zurizkoa da
bakea etxian.

Paulin

ISEKARIK EZ EGIN ERRIARI

Oso gogorrek ziran benetan Francoren aldiak, askatasunik ez, langilleen eskubiderik ez, ez burujabetasunik, ez emakumeentzako aukerarik, gorri-gorriak ikusi genduzan askok eta batzuk besteak baño gorriagoak. Baziran be bizitza ona eroenak, baita ere, gomendadunak, salatariak, eta kontuz bizi bear genduan euskaldunak eta euskalzaleak atxilotuta ez izateko.

Gutarrak ez ezik, Francoren kontrakoak be ia beti politziarengandik alde egiten ibiltzen ziran.

Gauza on bat bakarrik egoan, danontzako bearra eta edonork lortzeko aukera eukan. Guzti au, guda ostekoa da, guda aurrekoa, askoz zallago eta gogorragoa zala badakigu ba.

FRANCO ILLOBIRATU TA GERO

Zaarraren-zaarrez Franco il egin zan eta ia danok itxaropentsu geratu giñan urrenko mandatiariaren zain.

Demokrazia etorrela esan jakin eta orren erakusleak U.C.D.'koak izan ziran. Zelan egingo eben oso ondo jakin barik, "tejerazoa" ikusi genduan (militarrak ain laster matxinada egiteko U.C.D.koek diktadura benetan aldatzen ebiltzela beti pentsatu dot) eta sozialistak boterera igon ziran. Gauzak ere aldatzen asi ziran eta ez gauzak bakarrik, pertsonak ere jakeaz aldatzen asi ziran.

Alderdi indartsuenaren alderako jende askoren lasterketa ikustea, izugarritzkoa zan. Margo edo kolore askotako nastaketa ikusi zan orduan: Gorriak urdiñak, urdiñak orlegiak, berdeak orriak, orriak gorriak e.a. Nastaketa orren ondorioz, urtxintxa edo katagorri asko sortu ziran, bata bestea baño gorago igoteko prest egoan eta au lortzeko, nor zapaltzen eban edo bide txarretik ete joian ikusi barik.

GUZURRAK

Itz samurrak, lizunkeriak eta guzur utsak erabili ebezan errian atsipetriz, gure izkuntza eta ikurrak zikindu, anaiak saldu eta erri-legeak bortzatu egin dabez baño guzti au jazoten dan bitartean, erriak zer egiten dau? salbuespen batzuk izan ezik, geienak alderdi edo partidu nagusienak, sasi-jainkotzat artu dabez eta itsu biurtu dira edo patxadaz artu dabe euren bizi-modu ona aldatzen ez deutseen bitartean.

ERRI-ONDAMENA

Erri kutxetan esku loi larregi sartzearen ondorioz erriak ilzorira eroan dabez, guztiz ondatuta itxi deuskue eta ori ez ezik langilleak ba, egunero asmatutako zerga barri bategaz estutu egiten gaitue. Eta zelakoak! aginduz eta agoa zabaltzeko aukerarik ez. Geien irabasten dauanari oster, erreztasun guztiak emoten deutseez zergak gutxitzeko, beste askok euren irabaziak ez dabez autortzen edo autortzen dabena lortutakoa baño askoz gitxiago izaten da.

ERRIKO EUSKERAREN AIENATZEA

Onetan be erriari iseka egiten dautsoe. Asmaturiko batua iragarbide edo komunikabide guztietan, aginduz ezarri dabe eta olan erri-euskerea gero ta gitxiago egiten da, ez da iñun irakurtzen, ez idazten, ez entzuten, euskaldunen etxeetan zaarrak bakarrik erabilten dabe. Gazteok ikasten daben batuagaz daukazan ezbardintanaren aitzakiak arrazoituz, etxera gaztelaniera daroe eta erri-erakundeak antolatutako ikasbideagaz erriko izkerak illobira daroez.

Urteetan zear gaurko agintaritzak izkuntza-biziaren iltzailtzat agertuko da. Asken aldietan idazle batzuk, ezarri daben batua, kaltegarria ta ezegokia dala esaten ausartu dira baño alan ta guztiz ere, izkuntza -arduraduna eta bere ingurukoak, gorrak, mutuak eta itsuak egiten dira.

PALMI



IKURRINAREN EUNGARREN URTEAN ("Gure aitak amari"ren doiñuaz)

– Sabiñek esan guri
zein dogun gure aberri
aberi dala Euzkadi
aintziñako Euskalerrri
Euzkadi dala aberri
Sabiñek esana guri!

— Sabiñek guri egiña
Euzkadiren ikurriña
gorri-orlegi-zuria
gurutze bigaz yarría
ikurrin eder garbia
Euzkadiren irudia!

— Gora ta gora Euzkadi
esan dagigun beti
gora ta gora Euzkadi
eta Arana Goiri!

— Gora ta gora Euzkadi
esan dagigun beti!
Gora ta gora Euzkadi
eta Arana Goiri!
Gora ta gora Euzkadi
eta Arana Goiri!

MAITENA'K

IRAKURLEAI OARRA

ZER aldizkariak eta EUSKERAZALEAK ALKARTEA'k ba-dauke Bilbao inguruan urteko arpidetza eskuratze-ko erea. Etxerik etxe joaten da kobratzaillea. Baiña gauzea ez da ain erreza errietan. Orregaitik eskari au egiten dautzuegu: Bialdu eiguzue txartel edo txeke bat. EUSKERAZALEAK ALKARTEAren izena ipiñi ta 1.500 pezeta dirala idatzita. Txartel ori sartu karta-azal baten eta gaiñean zuzenbidea ipiñi: EUSKERAZALEAK ALKARTEA. Colon de Larreategi, 14, 2º, eskoia. 48001 BILBAO.

B IZKAITARRAI BIZKAIERAZ



**Eusko Jaurlaritzaren
Laguntzaz.**

Kultura Saila

GORATZARREA "AITA SANTI'ri"

Omenaldi oneik, batzutan pozgarri diran arren beste batzutan gogaikarri. Azken urteotan askotxo dirala-ta baleiteke ain gogoko ez izatea.

Dana dala, ni lengo illaren lenengoetan omendua izan nintzan nun eta neurre erri Amoroto'n, omenaldi benebenetan atsegintsua.

Emen dozuez, Jon Egilleor'en Edestia eta bai meza nagusian, bai arratsaldeko ekiñaldian erriko neskatillak abestutako estrofak. Beñiola erri onetan txauburu izandako Amuriza jaunak egindakoak abestu ziran. Eskerrik asko Amuriza. Zuontzat doaz emen, eurok.

AITA SANTI'K



Atsedan-aldi batean, gure ortuan.

ONAINDIA'tar SANTIAGO (Aita Santi) Karmeldar Aitari bere jaioterridan AMOROTO'n, erri osoak egin eutsen. Goratzarrea joan dan Uztailaren iruan izan zan.

Ezagutzen ez dabeneztat, esan bear dogu AMOROTO erri polita ta guztiz baketsua dala, batez ere ango biztanlekatitik eta baita, zorionez, ara doan bitzabala antxe bertan amaitzen dalako.

Erri orretan "ATXURIARTE" eritxon baserrian, 1909'gko. Epaillaren 24'an, geure Aita santi'k bere begitxuak zabaldu ebazan, ludi ontara eldu zanean. "ATXURIARTE" baserria, zoritxarrez erre egin zan eta, oraingoz beñipein, ez dabe jaso besterik.

Geure "Aita Santi" ez zan jaio geldi egoteko, lana egiteko baiño. Bere ikasle-aldian, Markiña'n, Gasteiz'en eta Begoña'n egon zan. Meza barria Markiña'n emon eban, 1934'gko. Garagarrillaren (Uztailaren) 31'an, au da: geure Iñaki Deun Aundiaren eguean.

Gero lekaidetxe ezberdinetan egon zan eta geure zoritxarrezko gudan "KAPELLAU" lez bere egin-bearra bete eban. Ondoren espetxeratu eben eta beste abade ta lekaide askorekin "CARMONA"ko espetxean egon zan eta euren kaz batera, España'ko sozialisten buru bat zana, JULIAN BESTEIRO jauna. Auxe olantxe zala orduko argazki baten ikusten da ta gañuera argazki ori Aita Santi'ren "OROI TXINPARTAK" izeneko idazti baten agertzen da, bakoi-tzaren izen-abizenak imiñita.

Andik urtenda, erbesteratuta lez España'ko lekaidetxetara bialdu eban bere nagusiak, bere lekaidegintzan jarraitu egian. Azkenez Euzkadi'ra biurtu zanean bai abadegintzan eta baita euskerazko gaietan be buru-belarri sartuta aurkitzen zan.

Euskeraren alde ainbat eta ainbat idatzita dauka. Batzuk berak, beste batzuk bilduta ta asko bai latiñetik eta bai gerkeratik euskeratutakoak. Gogoratzen doguzanen artean aitatu leiz:



Karmoara (1940). 12 apaiz, espetxeko larrin itxian. Ni lenengo, azpiko leen-lerroan.

MILIA EUSKAL OLERKI EDER, 1954'an egiña. Onetzaz auxe esan bear da: naiz eta baimen guztiakaz argitaratuta egon, salgai imiñi ta lastertxu baten francotarrak debekatu eben eta eurentzat eroan ebezan idazti guztiak; eta maltzurak ziran lez, ludi zear zabaldu ebezan erakusteko euren agindupean askatasuna egoala edozer gauza argitaratzeko. Baiña euren jokoa txarto urten jaken, gerotxuago bai Japon'dik eta baita beste laterrietatik be eskutitz batzuk bialdu eutsezan "Aita Santi'ri" ZORIONAK emoten, argitaratu eban idazti orrexegaitik.

—NERE BASERRIA
JOLASKETA
—GOIZNA BAR
—ON BIDEA: au Teresa Deunaren "Camino de Perfeccion", bera eta Aita Lino'ren artean euskeratuta.
LARREA ta KARMELDARRAK
— OROI TXINPARTAK: bere bizitza.
EUSKAL ELERTIA
—KARMEL aldizkariari, sortu zanetik, bultzakada aundiak emon eutsozan.

eta beste izkuntzetan idatzitakoen artean euskeratu eban:

—ODISEA
—FAUST
etab.

Lan ugari ta eder ori ikusita ez da arritzekoa olako seme bikain bateri bere erritarrak goratzarre bat egitea ta ori eskeiñi eutsoen asieran aitatu dogun egunean.

Goratzarre ori Meza Deun eder bataz antolatuta asi zan eta erritar geienak antxe egozala esan lei, eleizea jendez gaiñezka egoalako. Meza orretan erriko abesbatzak, Gabiola'tar Jose zuzendari zala, abesti egoki ta gozoak abestu ebazan; euren artean bata AITA SANTI'ri eskeiñita ta beste bat AMOROTO'ko erriari. Azken bi onein izki ta erestitzak onen amaieran doaz.

Ondoren Erriko Enparantzan bertsolarien ekiñaldia izan zan eta amaitu ebenean Aita Santi'ren itz batzuk eta, bere oiturea dan lez, erdi txantxetan egi biribillak bota ebazan danen poztazunerako; bere itzalditxuan igertzen zan lekai-de bat zala, eta zelakoa!

Gero, pelota-tokian, geure oitura onak ez galtzeko, bazkari ona ta ugaria gorputzak zaindu ta bizkortzeko.

Bazkal ostean beste bertso batzuk eta olan alaitasunez ezin aitzutako jaia amaitu eben, egun zoragarri atan. Orrrelan AMOROTO'ko erriak kitotu eban Aita santi'gaz eukan zorra.

Orain gauza ona izango litzake, erriko bazter egoki baten "AITA SANTI'ren" irudia jartzea: Orrelan geure ondorengoak jakin dagien zelako seme ospetsu, leial eta bikaiña urten zan erri txiki baiña txukin eta polit orretatik. Orrelako irudi bat "AITA LINO'ren" jaioterriko baserrian jarrita dago; ori Dima'ko OBA auzoan aurkitzen da.

Beste barik ZORION ba AITA SANTI, merezi ta artu dozun goratzarreagaitik eta baita AMOROTO'ko erriari gogoratu dalako bere ospe audiko seme orregaz.

Egileor'tar Jon

GAIÑEZTUTAKOA

Jarraian doaz "AITA SANTI" ta "AMOROTO'ren" alde abestu ebezan izki ta erestitzak:



Aita Sunti'k txupelu uizkor ipinten dau.

AITA ONAINDIA

<p><i>J, f</i> ~i7</p>		<p>MIII</p>		<p>i - = -</p>		<p>oe f/tri-</p>		<p>- I</p>	
<p>44 mo r® fo kd Q F~c, ri r oeK Sor E Ct E°</p>									
<p>fut .kc 50 r~a</p>		<p>^{n,u} tü K© zq lcl ko nveh fv rar kO</p>							
<p>dei P r4 rri Ko n</p>		<p>/er 54₁₁ i fez</p>							
<p>e ro 6 Z z4 4 ti e q_r, zn J o e mo na bere a ro</p>									
<p>ge. Q bs vr et aln por</p>									
<p>o r~ Xe gaur ~v e rl ~t D men zen a~</p>									
<p>~.,'ri :t~f1:~I~_ _ _ _ I_ ii =</p>		<p>eh ~ ae h 4 t ® naia</p>							
		<p>r 3lr</p>							
		<p>P Ke n fsun e - ~v - rl ca</p>							

1) Amorotoko Atxuriartek sortua eta jagona mutiko zala komenturako deia etorri jakona. Aita Santi lez gero bizitza lanean zintzo emona bere larogei eta bost urtez oraindik gordin dagona orixe da gaur gure erriak omentzen dauen gizona. Aita Onaindia

2) Naizta sufritu gerra latza ta gerrosteko itomena istorirako or gelditzen da Aita Santiren kemena. Txarrean baikor, onean pozkor nekatzen ez dakiena. Idazle eta batzaile andi Euskalzale nabarmena artu egizu Amorotoren eskerra eta omena Aita Onaindia

3) Amorotoko kanpai jagia umetan sarri entzuna zure sustriak nungoak diren gogoratuko dautzuna. Euskalerrriak igaz autortu eutsun merezi zenduna eta gu asi ginen pentsatzen aurten egingo geuntsuna auxe da zure jaioterriak eskeintzen dautsun eguna.

AMOROTO' n
(1994-07-03)

OMENALDIAK

SAN MARTIN EGUNA

ILLUNPEAN

Illunpean nekaturik
dabil mundua
arnas eta argi barik
bide galdua

Jauna, jauna, jauna
bai errukitu salba
maitasunez zure erria.

Gorrotorikan ez jauna
maitetasuna
mundu guztian zabaldu
bakea jauna.

ERRUKI

Erruki jauna
galdu ta gabiltza
sinismenen giltza
erruki jauna
Kristo erruki
ez dut eduki
zutzaz maitasunik
ez eta gizonen kupirik
erruki jauna.

LENGO BATEAN

Leengo batean
illun nabarrea
galdez ari nintzen
ni isillean
keska bat nuen
nere barrean
ni zutzaz gomutatzean
ikusten zuen
gure erria
ez zala atzoko udaberria
galdetu nion
esan dezala
zer gertatzen den egia

O erri maite
O erri maite
esan zer gertatzen den
O erri maite
jakin nai nuke
zure naigabea zer den
ta berak erantzun.

Zuok, zuok
zuok zarete erria
ni naiz, ni naiz
ni naiz zuen aurpegia
zuok zuok
zarrak eta gaztedia
danok, danok
danok zarete erria
danok, danok
danok bagara erria
danok, danok
egin dezagun ohea.

NIK ZUK GUK

Nik, zuk, guk
dogu esaten
ezin gerala ikusi
ez gerala maitatzten
Nik, zuk guk
dogu ikusten
erriak elkarren aurka
anaiak elkar jotzen
Nik, zuk, guk
dogu ikusten
guztiak bakea eske
denak gerra egiten.

Entzun aita zerukoa
kendu gure gorrotoa
entzun aita zerukoa
eta egun baten
anaioak bakez
bildu baitezten.

ASKATASUNA

Askatasuna maitatzeko
ez bengatzeko, ez iltzeko
askatasuna bakerako
gizon guztien onerako
gizon guztien onerako.

Askatasuna ez da
errien jostailu
baizik gizon bakoitzak
iritxi bear du
ez jakintasunaren
kateak urratu
eta lagun urkoak
leialki maitatu.

Askatasuna maitatzeko... { baten

JAUNGOIKOAREN BILDOTSA

Jaungoikoaren bildotza,
zeuk kentzen dituzu
munduko pekatuak
erruki Jauna.
Enoiguzu bakea.

{ 3 bidar

AITONA, AMONA

Aitari, amari
erriko zaarrei
gatoz kantari
aitona amonari
biotzez aotsez
eta kantu otsez
aitonek ordez
igaro dezaten gaur pozez

bi
bider

Zorionak amona
Zorionak aitona
gaurko egunez
igaro daizuela pozez.

f bi
bider

UDABERRIAK

Udaberriak
zelai ta mendiak
loretzen dituan bezala
gure erriaren itxaropenak
egi biurtu ditzala.

Biztu gure asmoak
eta itxaropenak
biztu gure ametsak
bakearen bidea
noizbait irikiko da
poztu gure biotzak.

Uso txuria elduko da
badator egara
uso txuria elduko da
geu maite bagara
uso txuria elduko da
geu maite bagara
uso txuria elduko da

Badator egara.


EUSKALDUN BARRIENTZAT

	T	S	A	S	E	R	T	Z	E	A	
P	O	R	T	U	G	E	Z	A	L		
H	O	N	D	A	R	B	A	G	E	B	
M		N	D	E	R	Z	A		M		
G	A	R	A	A	T	E	N	U	S	R	
A	H	O	Z	N	R	O	T	K	A	R	
I	S	Z	I	B	U	R	U	T	Z	A	
A		M	E	Z		I	O	R	A	D	
S	R	O	K	K	A	O	D	A		N	
A	N	M	U	R	R	A		N	D	O	
P	E	R	Z	I	P	R	O	S	T	H	

Itz-salda onetan kai batzuren izenak daukazuz sartuta; izenak, onek dira:

MUTRI KU,
ORIO,
ONDARROA,
PASAIA,

ARMINTZA,
ZIBURU,
ONDARRIBIA.



Zein bidetatik joango dira gizon onek, euren osagarria topateko?



Marrazki onetan 7 erru dagoz. Aurkituko dozuz?

KARMELE

EUSKER1 Z7 LE~K

Colon de Larreategi, 14 - 2.º dcha.
48001 BILBAO



Betidanik.

BBK
Bilbao Bizkaia Kutxa

4173el*itT k~cT~7971*A 71 — 11

150 PEZETA

Itzau begiak une batez eta
begiratu zeure inguruari.
Eraikiñak, kaleak, aurtzaroan jolasten
zendueneko lekuak, ikastegia... Ainbat
eta ainbat gauza ez dira leengoak, ez da?
Garaiak aldatu egin dira. Ezin ezetz esan.
Aiekin batera, zuk oraindik atsegin
dozuzan gauza asko be desagertu egin dira.
Urbiltasuna, begikotasuna,
zuzeneko artu-emona... Orain egiozu so
antziñako sukursal orren argazkiari.
Eta konparatu BBK'ren egungo edozein
bulego ta sukursalekin.
Ez dira ain ezbaridiñak.
Azkenean, garrantzitsuenak
bere orretan dirauelako.
Gauza batzuk oiñarrikoak dira eta ori
ondo dakigu BBK'kook.
Garaietan zear aldatu egin gara. Jakiña.
Baiña leengo berberak gara.
Zuri laguntzeko. Eta zure alegiñaz
eta geurez onurak itzultzeko.

Depdrito Legal: BI-1452-85
FLASH COMPOSITION, S.L. - BILBAO